



KOADRILA ARTEKO BATELEN ESTROPADA

“OLARRO EGUNEKO XVIII. BANDERA”

Olarro Eguna, 2026ko irailak 19

1.- DATA ETA LEKUA:

2026ko irailaren 19an goizeko 11:00etatik aurrera izango da.

Olagarro eguneko estropada Itsas kiroldegitik irten eta Txomin Agirre kairaino joan-etorria izango da.

2.- IZEN EMATEA:

- Izen ematea irailaren 1ean zabaldu eta irailaren 15ean itxiko da.
- Parte-hartzaileen gutxieneko adina: 13 urte izango da (abenduarien 31n duten adina kontuan hartuta.). Kategoria bakarra izango da.
- Izen-ematea Lubaki Kiroldegian egingo da, eta nahitaezkoa izango da izen-emateko orria betetzea. Behin izena emanez gero, parte hartzeko konpromisoa hartzen da.

3.- TALDEAK:

- Talde bakoitza 4 pertsonen osatuko dute (batelean sartzen direnak), mutilak nahiz neskak.
- Bandera irabazteko ezinbestekoa izango da 4tik 2 zumaierak izatea.
- Talde bakoitzak arduradun bat izendatuko du eta haren telefono zenbakia eta emaila eman beharko du, harremanetarako.

4.- ERANTZUKIZUNA

- Antolakuntzak ez du bere gain hartuko parte-hartzaileek beren buruari edo beste hirugarren bati egin diezaieketen kalte edota lesioen erantzukizunik.

5.- SARIAK

- Irabazleentzat bandera eta Geoparkeak eskainitako bisita gidatua izango dute.
- Bandera irabazteko ezinbestekoa izango da 4tik 2 zumaierak izatea.
- Sari banaketa kofradian izango da, 19:30tan Ohiko banderaz gain, azken urteetan egin ohi den moduan, emakumeen partaidetza saritzeko beste bandera bat izango da. Parte-hartzaileen artean bisita gidatu bat ere zozkatuko da.

6.- ENTRENAMENDUAK

- Irailaren 1etik irailaren 18ra Lasuna txalupa erabiltzeko aukera egongo da.
- Eskaera turismo bulegora presentzialki joanez, telefonoz deituz edota turismoa@zumaia.eus helbidera emaila bidaliz egin ahalko da, beti ere, estropadan parte hartzeko izena eman ondoren. Entrenamenduan txalupa eta arraunak behar bezala zaintzen ez dituen taldeak ezingo du estropadan parte hartu. **Taldearen ardura izango da erabilera baldintzak zeintzuk diren jakitea.**

7.- ANTOLAKETA BILERA

- Ez da bilerarik egingo.
- Antolakuntzak behin izen emate guztiak jasota, txanden zozketa egingo du eta talde bakoitzari emailez bidaltzeaz gain Udal webgunean zintzilikatu ditu.